



ttipi-ttapa

TOKIKOM

www.ttipi.net



2015eko abuztuaren 6a | XXXIV. urtea | 644. zenbakia

**Herrietako
Bestak/Festak**

ETXALAR → 12
Herriko trikitilariak botako
dute lehen altxaferoa

GOIZUETA → 17
Txapelketa eta Tximeleta
taldeak Amabirjin egunean

EZKURRA → 19
Nafarroako 3. mailako
aizkolari txapelketa jokoan

AMAIUR → 24
Artzain Zakur Lehiaketak
40 urte beteko ditu

UDAN LANEAN | Esperientzia eta sosa garaiko lanen truke

ARGAZKIA: PABLO FEO

Han eta hemen jai eta batzuk lana ere bai



Atsedean hartu beharrean, lanean aritzeko probestuko dituzte batzuek udako hilabeteak. Lan munduan ematen duten lehen urratsa da batzuentzat, gustuko duten horretan aritzeko aukera bertzeentzat: *Ai, ai, Hik lan eta nik jai!*

ERREPORTAJEA → 3-5



Olaia Bazar
OLAIA BAZAR Leitza
%10, 30€tik gora



FISIOETXEA Leitza
%10, 10 saioko bonoan



ARRATE Doneztebe
%10 Skeyndor kremetan



LEITZA KIROLAK Leitza
%5, 30€tik gora



OGI BERRI Leitza
%5 gozotegian, 25€tik gora



IRRISARRRI LAND Igantzi
%50 sarreran etab.



BIXKIAK Lesaka
%10



ETXE TRESNAK S.L.
ETXE TRESNAK Leitza
%10 koltxoietan etab.



IPARLA Elizondo
%8, 30€tik gora



ZORTZIKO Leitza
%5 gozotegian, 30€tik gora



ARGAZKIAK GOIKO
GOIKO Bera
%10 kopia digitalean



IPINGI Elizondo
%10, 30€tik gora



MASTER ALTZURI
ALTZURI Lesaka
%5 etxetresnetan



KIROLAK ZELA
ZELA Bera
%5 kirol artikuluetan



ALUSTIZA Doneztebe
%10, 30€tik gora



FOTO MENA
MENA Elizondo
%10 kopia digitalean



KULUNKA Leitza
%5, 30€tik gora



BORTZIRUDI Bera
%5 kopieta etab.




KATTAGORRIA Lesaka
%10 lenterian



KAPRITXO Leitza
%10, 30€tik gora



ZALDUA Donez/Eliz
%10 produktuetan



KATEA-BIKE Bera
%5 konponketetan



POTTOKI Elizondo
%5 opari txikietan



MARI CRUZ Donez/Eliz
%10, 30€tik gora



OSTARGI Bera
%5 produktu guztietan



DATUCELAY Elizondo
%10 bateria etab.



HERNANDORENA Leitza
%5, 30€tik gora



GAZTELU Leitza
%15 osagarrietan



NAFARPRESS Elizondo
%10 liburu eta materialean



INTZURI Lesaka
%5 produktu guztietan



SANSIÑENA Elizondo
%5 olio aldaketan



ARIZTELA Leitza
%5, 30€tik gora



ELBETEKO POSADA Elbete
%10 kartan 30€tik gora



MAIMUR Leitza
%10 oparietan



MENDAUUR Doneztebe
%5 pentsu batzuetan



SEMPER Bera/Lesaka
%10 matrikulan



GARBI Leitza
%10, 30€tik gora



UDAL KIROLDEG. Lesaka
%40 matrikulan



OREKA Lesaka
%5 kontsultan etab.



JAIONE Doneztebe
%10, 12€tik gora



KUKUKA Doneztebe
%10 pijama etab.



EDR GUNEA Leitza
%5, 30€tik gora




URDI BERA Bera
%20 urteko matrikulan



KIMETZ Doneztebe
%5 kosmetikan etab.



OSTIZ Doneztebe
%10 oinetakoetan



JUAN J. PICABEA Doneztebe
%10, marka batzuetan



AMAIA Doneztebe
%5 kosmetikan etab.



AGARA Bera
%5 kirol artikuluetan



ELIKA Bera
%5 kontsultan



TXINELKA Lesaka
%10

GIZARTEA → UDA LANEAN

Nik lan eta hik jai

Udan lanean ari diren gazteekin solasean

Atsedean hartu beharrean, sos batzuk lortzeko probestuko dituzte udako hilabeteak. Lan munduan emanen duten lehenengo urratsa izanen da gainera, batzuentzat;

gustuko duten horretan aritzeko aukera bertzeentzat. Gaiaren inguruan solastu eta euren bizipenak biltzeko eskualdeko bartz gazterekin bildu da TTIPI-TTAPA.

Eneritz IRAOLA

Garagardo frexkoa edan, inguruko bazterrak bisitatu, txarangaren gibeletik dantzan aritu... Udako oporretaz gozaten ari direnek egin ohi dituzten ekintzak dira. Baina denek ezin... batzuk gozatu ahalizateko besteek lan egin behar izaten dute eta.

Ekainean edo uztailean hasi eta lanean ari

diren eskualdeko bost gazterekin bildu da TTIPI-TTAPA.

Maiena Uhart Sarako lezeetan ari da gidari lanetan; Incansables txarangako kideak, ize-nari izana zor, eta festarik festa dabilta; Itziar Mitxelena Ibardingo turismo bulegoan izanen duzue esperoan; Asier Jauregirekin tabernaren batean egiten duzue topo trago

eske joandakoan eta Maddi Taberna Arantzako aterpen ari da begirale lanetan.

Ingurukoak oporretan dauden garaian lanean aritu beharra «bartzuetan gogorra» dela dioten arren, «gustora» daude duten aukerarekin «esperientzia hartu eta diru-sarrera bat izatea bermatzen duela».

ugaritzen denez, «ikasleak lanpostu horiek lortu nahian ibiltzen gara, urte osoan zehar dugulako aukerarik izaten».

Nik lan eta hik jai... baina, tartean, gozatu ere bai!



Maiena UHART | SARAKO LEZEETAN GIDARI

«Ohartzen zara lana zer den zinez eta irabazitako diruari bertzelako balioa ematen diozu»

Udan lan egiteko «gogoz» herriko etxeak urte sasoi honetarako sortzen duen lan poltsan eman zuen izena Maiena Uharterk eta lezeetan suertatu zitzaion lanerako aukera. Uztailean 1ean hasi eta abuztuaren bukaerara arte gidari lanetan ari da saratarra, herriko lezeak bisitariei erakutsiz «lezeetako kudeatzaileak, euskara, frantsesa eta gaztelera dakizkidanez, gidari ibiltzea eskaini zidan eta baietz erran nuen». Orduan, beharrezko formakuntza eskaini zioten «hastapenean metodoa, teknika eta lezeetako historia ikasteko eta gero bertze egun batzuetan lezeetan barna ibili ginen, jakiteko ze jarrera ukan behar nuen bisitariekin egoera desberdinetan: izan elbarrituei laguntzeko, arazo bat dagoenean jakiteko nola egin aurre egoerari...». Lezeetako ziri-rikituak aski ezagunak zaizkio «honezkerok, ez da sekretu handirik niretzat».

Lanerako orduan, ez dute gidoi bat zorrotz jarraitu behar izaten «zinez ongi da, uzten digutela askatasuna kontatzeko guk dugun ezagutzatik. Nik euskal kulturako kontuak aipatzen ditut, usaiatua naiz gaian eta badakit zertaz ari naizen, horrela bisita gure erara pertsonalizatuko aukera izaten dugu».

GIDOI ZORROTZIK GABE

«Nik euskal kulturako kontuak aipatzen ditut, usaiatua naiz gaian eta badakit zertaz ari naizen. Horrela, bisita gure erara pertsonalizatuko aukera izaten dugu».



Gustora dabil gidari lanetan «geroz eta gehiago. Hastapenean pixka bat lotsatu nintzen gaztea naizelako, aurten gazteenetarikoa. Ez zara hasieran usartzeko sobera presente egoten besteentzat, baina pixkanaka-pixkanaka ikasten duzu». Egunero zerbait ikasten duela ere aipatu digu «frantses aunitz etortzen dira, alemaniarrek... eta egiten dizkizuten galderekin aunitz ikasten duzu». Maila pertsonalean «aukera oso aberatsa» dela dio «urte osoan zehar ikasten ari gara eta iruditzen zaigu kristoren lana dela gurea. Horrela arituta, ohartzen zara lana zer den zinez». Gainera, irabazitako diru horri ere «bertzelako balioa ematen diozu. Ikusten duzu zenbat kostatzen den lortzea eta ez duzu gastatzen hain errez». Norbere denbora eskainita, «pixkanaka ordaina, saria, lortzen zoaz eta ez duzu ibili beharrik beti amari edo aitari galdetzen».

Incansables TXARANGA | HERRIZ HERRI BESTAK ALAITZEN

«Musika asko gustatu eta gure artean erlazio ona dugunez, gustora egoten gara jotzen»

Tronpeta, tronboi, saxo... eta bertze hamaika instrumentu atzinduz, besta batetik bertzera ibiliko dira uda honetan ere Incansables txarangako kideak «**ekainaren 20an hasi eta urri hasierara arte gelditu gabe**». Bi irteera mota egiten dituzte «**batzuetan egun bakarreko saioak: Irurita, Donostiara... adibidez; eta besteetan, egun bat baino gehiagokoak: San Ferminak, Leitza, Elizondo, Bera...**».

Txaranga 10 kidek osatzen dute eta ahobatez diote Incansableseko kide izatea ez dela sakrifizioa «**lan bat bezalaxe ikusten dugu eta musika asko gustatu eta gure artean erlazio ona dugunez, gustora egoten gara jotzen**». Euskarri Herriko txoko askotako musikariak dira, «**Bortziriak, Tolosa, Hernani, Leitza, Tafalla, Donostia... ingurukoak**». Txarangan lan egitearen alde on nabarmenena «**beti besta giroan murgilduta gaudela da eta leku aldaketa asko egiten direnez ez garela monotonia batean bizi**». Alderdirik makurra berriz, ordutegi malgua eduki behar izatea da «**leku bakoitzaren beharrenez arabera egokitu eta noiz edo noiz tokatzen zaigu ordu gutxi lo eginda edo ordu asko jarraian jo behar izatea**».

ORDUTEGI MALGUA

«**Leku bakoitzaren beharrenez arabera egokitu eta noiz edo noiz tokatzen zaigu ordu gutxi lo eginda edo ordu asko jarraian jo behar izatea**».



Karrikak dituzte lantoki eta bestetan denetarik izaten dela ezin ahantzi, «**leku batzuetan gertatzen da, mozkortutako jendea dagoela eta zirikatzen edo gure korroaren erdira "dantzatzen" sartzen direla baina orokorrean jendea ongi portatzen da**». Beraiek ere aitortu digute lanorduetan bestarako tartea, «**gutti baina zertxobait**» izaten dutela, hala ere, «**normalean egun libre batzuen bezperak aprobetxatzen ditugu juergara ateratzeko. Bestela lan orduak luzeak egiten dira eta kunplitu beharra dugu**». Urte asko daramatzate elkarrekin eta tartean anekdotak pilaka «**beti egoten dira xeblebrekariak. Musikariak izanik, noizbait, norbaiti musika tresna etxean ahaztu eta gabe joan izan da**» eran tzen dituzte barre artean.

Beraien erritmora mugitu nahi baduzue, Leitza bestetan duzue hurrengo hitzordua!

Itziar MITXELENA | IBARDINGO TURISMO BULEGOKO LANGILEA

«Txabolatxo honetan, mendiz inguratuta, kanpoan egonen banintz bezala sentitzen naiz»


Ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15a arte, Ibardingo turismo bulegoan ariko da lanean Itziar Mitxelena aranztarra. Goizeko bederatzietan hasten du lanaldia eta 18:00ak arte bisitariei azalpenak emateko prest izaten da. Bisitarien jatorriaz galdetuta «**gehienak frantsesak dira, britainiar dexente eta euskaldun batzuk ere hurbiltzen dira**» erantzun digu, «**zer ikusi dezaketenez, eta batez ere, zein mendi buelta egin jakin nahi izaten dute. Aunitzek lakura joateko bidez ere galdetzen dute**». Turismo bulego bateko langileak bertako liburuxketan dagoen informazio guztia buruz ikasi behar ote duen ez dakiela aitortu digu, «**baina ez da behintzat nire kasua eta orain arte, arazorik ez dut izan**».

Udan lanean aritzearen alde gozoa, «**goizetan eguzki izpien konpainian guztetik altxatzea ez dela hain zaila**». Gazia, berriz, «**zerbait erratekotasun, udan jende aunitzek oporrak ditu eta nik lanera etorri behar. Baina hori ez da arazoa, lanaren ondotik ere badugu denbora!**»

Opor giroan hurbiltzen da bezeroa bereganatu eta lana egiterakoan ere hori nabaritzen dela dio «**eta hori aunitz eskertzen da! Momentuz hurbildu diren gehienak lasai-lasai dabilta eta giro hagitz onean, hagitz jatorrak eta eskertuak dira. Erran dida-**

OHIKO GALDERAK

«**Zer ikusi dezaketenez, eta batez ere, zein mendi buelta egin jakin nahi izaten dute. Aunitzek lakurako bidez ere galdetzen dute**».



tenez, ordea, abuztuan bisitarien profila desberdina da eta aunitz aldatzen omen da... ikusiko da». Lantokia ere, inguru pribilegiatua dago «**txabolatxo honetan, mendiz inguratuta, kanpoan egonen banintz bezala sentitzen naiz. Inguru zoragarria da. Alde horretatik ez dut inolako kezarik**».

Egun pasa egiteko gomendioa ere eskatu diogu «**inguru honetan mendiaz gozatzeko aukera ederra dago. Mendi politak, bista zoragarriekin. Ondotik, hementan bazkari eder bat egiteko aprobetxa dezakegu. Eta ilunabar aldera, Arantzako giro ederrez gozatzera gonbidatuko nituzke! Kar kar kar!**»

Oporrak noiz izanen dituen ere galdetu diogu eta «**18:00etan lana bukatu eta hurrengo eguneko 9:00ak arte, tarte hori ahalik eta gehien aprobetxatuko**» due-la erran digu, «**gainera, abuztuan ere egun batzuk libre izanen dut, beraz, ederki**».

Asier JAUREGI | FESTAZ FESTA TABERNARI

«Jende gehiena ezagutzen dudanez azkenean herritar bat bezala tratatzen naute»

Festarik festa lan egin behar gauero dio kanta ezagunak eta Asierren errealtatetik ez dabil oso urrun «gau aunitzetan lan egin behar izaten dut, baina ez denetan. Saiatzen naiz gustoko besta batzuetan libratzen besta pittet egiteko». Udako lan denboraldia «maiatz inguruan Iruritako bestekin hasi eta urrian Gartzaingoekin akitzen dut normalean. Hala ere, iaz Aurtitzko bestetan ere lan egin nuen azaroan». 2014an Elizondoko Intza ostatuan hasi zen lanean eta geroztik, «herri guttiagotara gaten naiz, baina, halere, badira hiruzpalau herri kasik fijoak urtero: Irurita, Ziga, Arraioz, Gartzain...». Intzan hasi aitzinean, berriz, «Baztango herri gehienak kurritzen nituen, urteren batean 10 herritan arituz! Eta Baztandik kanpo, Doneztebe ta Beran ere aritua naiz noizbait ere».

Udan lan egitearen alde gozoa, «bazter guzietako jendea ezagutzeko aukera izaten dela, eta batez ere alkoholaren laguntzagatik jendeak errexago solasten duelako». Horretaz gain, aurrezteko modu ona ere badela dio «bestaz gastatuko nukkeen dirua ere ez dut gastatzen eta biharamunean resakarik gabe jeikitzen naiz». Alde gazia berriz, «zerbait errateagatik, besta pollit aunitz "galdu" ditudala lan egiteagatik».

HERRIZ HERRI

«Baztango herri gehienak kurritzen nituen, urteren batean 10 herritan arituz! Eta Baztandik kanpo, Doneztebe eta Beran ere aritua naiz noizbait ere».



Lanerako bestarik egokienak zeintzuk diren galdetuta «arrazoi ekonomikoengatik, giroagatik..... egie errateko ibili naizen herri guzietan gustora lan egin izan dut, batzuetan lan gehixeago eta bertzetan gutixeago. Baina, jende gehiena ezagutzen dudanez azkenean herritar bat bezala tratatzen naute». Bezerorik hoberena argi du zein den «tabarra guttien ematen duena. Pazientzia aunitz behar izaten da». Besta giroan hurbiltzen dira bezeroak beregana «solasa ugari izaten dute aunitzek eta irri bastante egiten dut, normalian beraiekin, noizbehinka beraietaz» dio irriz. Barratik kanpora ateratzeko gogoari ere eutsi behar izaten dio maiz «plazako giroa aunitz gustatzen zait, eta ni lanean nagoen bitartean kuadrillakoak eta lagunak bestan ikusteak emedia ematen du». Hala ere, ikasi du egoerari buelta ematen «barraren barneko aldean animatu eta lixto!».

Maddi TABERNA | ARANTZAKO ATERPEN BEGIRALE

«Esperientzia hartuz, maila pertsonalean irabazten duzu dirutan baino gehiago»

Magisteritzako ikasketak bukatu berri ditu eta bigarren uda igaroko du lesakarrak Arantzako Aterpen begirale lanetan. Ekainean hasi eta abuztu hondar arte, neska-mutikoen barre eta jolasen artean ibiliko da «sekula ahaztuko ez duten oporraldia eskaini nahian». Lana bera «gozoa» dela dio «ni oso gustora etortzen naiz udalekuegara. Lana da, baina hagitz gustora pasatzen dut hurrekin. Ardura handia dugu gure gain eta astea bukatzerako nahiko nekatuak bukatzen dugu, baina, oporraldi ttiki bat bezala ere hartu ahal da».

Lan egiteko modua ere berezia da, «udalekuetan ohiko irakaskuntzaren moldeak hausten dira, ez da klasea ematea bezala. Beste dinamika bat da, bes-talako harreman mota batzuk sortzen dira». Udalekuetan izen-ematen duten haur kopuruaren arabera egiten dute lan, txanda desberdinak osatuta «igandetik larunbat eguerdira arte egoten gara, aste beteko txandetan eta helburua eskal giro batean aste bete pasatzea da». Etor-tzen diren haurren euskara maila ez da beti berdina izaten «euskaraz dakiten batzuk etortzen dira, horiei aisialdia euskaraz eskaintzea da as-moa. Oso ongi ez dakitenen kasuan, berriz, be-

LAN GOZOA

«Lan gozoa da oso. Ardura handia dugu gure gain eta astea bukatzerako nahiko nekatuak bukatzen dugu baina oporraldi ttiki bat bezala ere artu ahal da».



larria egin eta pixka bat ikastea». Azken finean, «ikustea baidagoela euskaraz bizitzeko modua. Arantza da horren adibide garbia».

Lan egiteko orduan, plangintza orokor bat dute eta gero eguraldiaren arabera moldatzen joaten dira, «08:30 alde-ra jeiki, haurrak mugiarazi, gosaltzera joan, haurrek mahaia jarri eta gosaldutik, goizeko ekin-tza egiten dugu. Gero bazkaldu eta arratsaldeko ekintza. Afaldu eta afalondoa gaubelak». Lotara joateko orduan hasi ohi da eguneroko borroka txikia «gaueko hamaiketarako isilik eta bakoitzak bere ohean egon behar du baina ezin lokartuz ibiltzen gara».

Udan lanean aritzeko aukera hau izatea, «esperientzia hartzeko aukera polita da lan munduan eta, batez ere, hurrekin. Maila pertsonalean irabazten duzu dirutan baino gehiago».



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Udako abentura

Urpoko udaberriaren ondotik azkarki kexatzen ginen “Non ote da eguzkia? Orain, berriaz, uztaileko galdak pasatuta, dena idortzen ari eta “Non ote da euria?” ibiliko gara arranguraka. Animalia konformagaitzak gara gero! Herrietako bestak ere sutan! Ongi jatea, edatea eta pasatzea da zereginik gozagarriena, halere, tarteka, alkohol eta bertzeren sukarrak ezin kontu, zoritxarreko zakarkeria, txikizio eta gehiegikeriak sortzen dira hanhemenka... edaten ere ikasi behar baita.

Bertzalde, hondartza, mendi, herri, hiri, urrun edo hurbil, udako bakantzetan mugitzeko ohitura aski arrunta izaten da; batzuek Kanarietara, Pirinioetara edo Hegoamerika zein Afrikara laguntza lanetara, bertzeak, aldiz, etxeko belarretara, ostalaritzan karraskan lanera edo herriz herri parrandan leher egitera... Hondarrean, guziek ekarriko dute uda ondoko istorio franko, eta sobera mugitu ez direnei kontatu die te udako abentura miresgarria. Abentura on!

«Zoritxarreko zakarkeria, txikizio eta gehiegikeriak sortzen dira, edaten ere ikasi behar baita»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Ttikia bai, baina ez eskasa


Lazkao-Txikik bere buruaz zioena ederki egokitzen zaio Koteto Ezkurrari ere. Altueraz ttikia bezain handia erremontean eta kantxetatik kanpo ere. 41 urte betetzear ditu eta, noski, ez da garai onenetakoa, baina historiara pasatuko da modalitate honetako txapeldun handiena bezala. Berriki 25 urte bete ditu profesionaletan: edozein lanbidetan aunitz da, kirolari batentzat gehiago.

Nabarmentzekoak



Isabel ELIZALDE
Ingurumen kontseilaria

Zubietan bizi den doneztebarra Uxue Barkos presidente duen Gobernu Toki Administrazio, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko kontseilaria da. Cerdernan aritu da urtetan.



Moises GOGORZA
Ezkurrako aizkolaria

Bere herrian jokatu den hirugarren mailako Nafarroako aizkolaria txapelketaren finalean parte hartuko du Amabirjin egunean, O.Kañamates, J.Etxeberria, J.Telletxea eta I.Agirreekin.



Koteto EZKURRA
25 urte profesionaletan

16 urterekin debutatu zuen 1990eko Sanfermin bezperan eta beraz 25 urte bete berri ditu profesionaletan. Hamarika txapel jantzi ditu buruz burukoan, baina aurten ez du parte hartuko.

Atzera begira → 2000-VIII-10 / LURRA 19. zk



Garai bateko mehatzegintza eskualdean

2000ko udako Lurra aldizkariak, lehengo mehatzarien istorioak bildu zituen. Izan ere, Bidasoaldeko Bezeroko minan izandako gorabeherak azaldu zituzten Joxemartin Zubieta eta Joxe Fagoagak, baita Ezkurrako lurretan zeuden Ollingo mehatzegikoak ere Goizuetaldean. Zubietak aipatzen zuenez, «izandu zen beratar bat karga garraiatzeko kaiolan hil zena, martxan zela burua ateri eta burni baten kontra jota». Ollinen, «lehenbizian langila asko aritzen zen, goizuetarrak asko, eta kanpotarrak beste hainbeste edo gehiago. Extremadurakoak, Portugalako...» aipatu zигun M^a Angeles San Miguel langile ohiak, argazkiari begira.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola Berriemileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrarena, Markel Lizasoain, Fermin Etxe-kolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



Prentsatik bildutakoak



«Ez nuen errekupe-
tzeke presarik ere.
Pixkanaka-pixkanaka
egin nahi nuen, orain-
dik aurreboraldia
aurretik baitut, eta
alde horretatik, orain-
dik astia badut.
Erritmo normalean
hasi nintzen errehabi-
litazioan, baina ekai-
nean *kaña* pixkot
eman genion, oporrak
hartu ahal izateko,
nahiz eta zerbait egin
dudan. Orain artean
ez dut arazorik izan».

Niko MINDEGIA
Jokalaria doneztebarra
D. NAVARRA 2015.07.20

«Urtero, Sanferminak
iristean, nere debutaz
gogoratzen naiz, urte-
muga da [25 urte egin
ditu profesionaletan]».
«Neretat hunkigarrie-
na lehen buruz buruko
txapela izan zen,
aurre sailkapenetik
sartu eta finala Peio
Aizpururi erraz irabaz-
tea lortu bainuen»
«Garrantzitsuena kirol
honekiko afizioa biho-
tzean sartua eduki-
tzea da eta nik ez dut
hori inoiz ere galdu»

Koteto EZKURRA
Doneztebeko erremontelaria
D.NOTICIAS 2015.07.19

11 galdera labur

**Nola aurkeztuko zenuke zure bu-
rria?**

Narbarteko gazte alaia, saltsera
eta gutti batzutan parrandera (irriz).

Zein afizio dituzu?

Lagunekin paseatu, kafetxo bat
hartu eta besta egitea.

**Astez haurtzain, asteburutan zer-
bitzari... zein nahiago?**

Biak gustatzen zaizkit, bakoitzak
bera du. Bietan pazientzia behar
da baina umeeekin errazagoa da.

**Narbarteko bestak gainean ditu-
zue... nola biziko dituzu?**

Herrikoak izanik gogo auni-
tzeekin. Halere, aitzinetik eta
ondotik lan egitea tokatu-
ko zaigu. Orain dena on-
gi ateratzeko gauzak
prestatzen eta akitze-
kin bildu eta txukun-
tzen.

**Nola antolatzen ditu-
zue bestak?**

Urtero bi maiordomo
arduratzen dira an-
tolakuntzaz, baina
gazte guztiok lagun-
tzen diegu.

**Bestetako zein eki-
taldi gustatzen zai-
zue gehien?**

Nahiz eta azken egu-

nean izan, zikiroa. Haur, gazte, hel-
du... denak elkartzen gara eta gi-
ro polita sortzen da, bai bazkarian
bai ondotik, bertso saio eta dan-
tzaldian.

**Egunez edo gauez nahiago ditu-
zue bestak?**

Egunez politagoa da. Etxez etxe,
herri kiroletan, tortilla patata lehia-
ketan, haurren egunean... izaten
den parte hartzea eskertzekoa da.
Halere, indarrak izanez gero, giro
ederrean ibiltzen gara gauetan.

Bestak edo inauteriak?

Bestak, baina moztorra-
tzea eta antzerkia egi-
tea ere gustatzen zait...

**Zer du Narbartek ber-
tze herriek ez dute-
na?**

Erreparatzeako zubia,
kislulabea, trinketea...

**Inguruko xokorik
politena?**

Aizkolegi. Eguraldi
onarekin goitik
ikusten diren bistak
zoragarriak dira,
nahiz eta hara goititze-
ak pereza eman (irriz).

Amets bat?

Herriko bestetaz ari ga-
rela... urtean bizpahi-
rutan izatea.



Olatz MUTUBERRÍA → Narbarteko gaztea

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

abuztuak 6 - irailak 3

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo **948 63 54 58**

<p>Erakusketak</p>  <p>ELIZONDO 2015.08.30 arte</p> <p>Tomas Sobrinoren margolanak Arizkunenean ikusgai</p> <p>Uda garaian han eta hemen erakusten dituzte beraien lanak eskualdeko artistek. Erraterako, Tomas Sobrinorenak Arizkunenean izanen dira.</p>	<p>Mendi ibilaldi-lasterketak</p>  <p>ELIZONDO 2015.08.30</p> <p>Elizondo-Aldude-Elizondo Nafarroa Oinezan alde</p> <p>Nafarroa Oinezek 27 kilometro luze eta 1.661 metroko desnibeleko Elizondo-Aldude-Elizondo mendi ibilaldi-lasterketa proba prestatu du.</p>	<p>Kontzertuak</p>  <p>ARANTZA 2015.08.22</p> <p>Arantza Rock Jaialdia jatorria bueltan 20. urteurrean</p> <p>Hogei urte beteko ditu Arantza Rock jaialdiak eta kontzertu berezia antolatu dute, Baldin Bada, Sutagar eta EHSukarra taldeekin. Sarrera: 10 euro.</p>
---	--	--

Baztango udalak eta Nafarroako unibertsitate Publikoak elkarlanean antolatu dute.

Jardunaldiak

LESAKA

Jabe-gabetzeari buruzko jardunaldiak

Abuztuaren 4tik 9ra jabe-gabetzeari buruzko Nazioarteko I. Jardunaldiak ospatuko dituzte Matxinbeltzenez.

Azokak

SARA

Ekoizleen merkatua

Abuztuaren 9an, igande iluntzean, tokiko ekoizleen merkatua plazan.

Selauru hustea

Abuztuaren 16an, selauru hustea plazan.

Ospakizunak

URDAZUBI

Burdinaren Eguna

Abuztuaren 8an.

LESAKA

Ezpatadantzarien Eguna

Abuztuaren 9an. Beti Gazte Elkareren 75. urteurrean.

Mendi irteerak

URDAZUBI

Bisita gidatuak ortzegunero

Uztailaren 16tik aurrera, ortzegunero eta 19:00etatik hasita, Urdazubiko ingurugiroa eta altxor ekologikoak ezagutzeko aukera Juan Goñi naturalistaren gidaritzapean.

ELIZONDO-ALDUDE-ELIZONDO

Oinez ibilaldi-lasterketa

Abuztuaren 30ean. Izen-ematea 12ra arte.

Erakusketak

BERA

'Argi jokoak'

Uztailaren 18tik abuztuaren 16ra

Oaia Peruarenaren margo erakusketa, Berako Kultur Etxean.

ERRATZU

'hAMAR, aitari'

Uztaila eta abuztuaren Diana Iniestaren oleo pinturen erakusketa ikusgai, uztailean bere tailerlean eta abuztuaren Erratzuko lixutegian.

ELIZONDO

Tomas Sobrinoren margolanak ikusgai

Uztailaren 23tik abuztuaren 30era Arizkunenean ikusgai.

Kontzertuak

ARANTZA

XX. Arantza Rock

Abuztuaren 22an Arantza Rock jaialdiaren 20. urteurrena ospatzeko Baldin Bada, Sutagar eta EH Sukarra taldeak ariko dira, 22:30ean hasita. Ondotik DJ Elepunto eta ilunabarrean Elektrotxaranga.

SENPERE

Landarbaso abesbatzaren emanaldia

Abuztuaren 7an.

Senpereko elizan 19:30ean.

ELIZONDO

Kultur'2015

Abuztuaren 19an

Tximeleta taldearen kontzertua 20:30ean Foru Plazan, Kultur'2015.

BERA

Kultur'2015

Abuztuaren 20an La

Tribu Obembe taldearen kontzertua 20:30ean Altzateko Plazan, Kultur'2015.

ZUGARRAMURDI

Kultur'2015

Abuztuaren 26an

Iparfolk taldearen kontzertua 18:00etan lezean, Kultur'2015 egitarauaren baitan.

Bestak

ZIGA

San Lorentzo bestak

Abuztuaren 7tik 11ra. Xehetasunak

643. alean.

SUNBILLA

Santiburtzio bestak

Abuztuaren 8tik 12ra.

Xehetasunak 643.an.

LEITZA

Santiburtzio bestak

Abuztuaren 8tik 15era. Xehetasunak 643. alean.

Ikastaroak

ELIZONDO

Tokiko elikadura eta nekazaritza ekologikoa Irailaren 3tik 4ra

PROPOSAMENA

AMAIUR

Artzain Zakur Lehiaketak 40 urte beteko ditu

Ez bat eta ez bi. 40 edizio beteko ditu aurtien Amabirjin egunez Amaiurko Artzain Zakur Lehiaketak. Patxi Etxeberria Memorialak ere hamaika urte beteko ditu. Horren inguruan, Baztan-Bidasoko XIII. Ardi erakusketa eta lehiaketa, ardi gasna eta artisauen erakusketa, lasto altxatze eta jaurtitzaren erakustaldia... Egun borobila pasatzeko modua!



ZUBIETA BESTAK 2015



**ZUBIETAKO
HERRIKO OSTATA**
Fiesta zoriontsuak denoi!

PINTXOAK | BOKATAK | BAZKARIAK | AFARIAK

T. 948 920 948 · ZUBIETA

ABUZTUAK 14, OSTIRALA (BEZPERA)

20:00 herriko txistulariak. Ondotik herriko trikitilariak. **21:30** Zopa handiak Herriko Ostatuan eta Errandonean. **00:00** Arbola altxatzea eta joaldunak. Dantzaldia DANTZADI taldearekin.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA (AMA BIRJINAREN EGUNA)

08:00 Diana. Egunean zehar haurrentzako puzgarriak. **11:00** Meza Nagusia. **Ondotik** txistulariak eta joaldunak. **12:30** Mendaur Musika Eskolaren emanaldia. **13:00** aizkora apustua: Erasun-Palaxio; Mindegia-Saralegi. **18:00** Iruñeko ORTZADAR taldeko dantzariak. **Arratsaldez eta gauez** FAN&GO taldea.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

08:00 Diana. Egunean zehar haurrentzako puzgarriak. **10:30** haurren pilota partidak. **10:30** Moto klasikoen kontzentrazioa. **12:00** Muxikoak. **16:00** Mus txapelketa Herriko Ostatuan. **17:00** Patata tortilla lehiaketa. Ondoren berendua eta sari banaketa. **19:00** Toka jokua plazan. **Arratsaldez eta gauez** HAUSPOLARIEK taldea.



ABUZTUAK 17, ASTELEHENA (HAURREN EGUNA)

08:00 Diana. Egun osoan haurrentzako puzgarriak. **10:00** herriko trikitilariak eta haurrentzako betiko jokoak. **Eguerdian** haurrentzako bazkaria. **16:30** Kulkiki. **Arratsaldean** Trikipoteo. **17:30** plater tiroketa herritarrentzat. **18:30** haurrendako berendua. **19:00** herriko gazteek antolatutako jokoak. **Arratsaldez eta gauez** OIHANA-OIHANA trikitilariak. **22:00** gazte afaria.

ABUZTUAK 18, ASTEARTEA (HERRIAREN EGUNA)

08:00 Diana. Egun osoan haurrentzako puzgarriak. **11:30** Pala txapelketaren finala. **14:30** bertso bazkaria: Amets Arzallus-Sustrai Colina. **17:00** haurrentzako futbito. **Arratsaldez eta gauez** JOXE ANGEI. **02:30** Arbola botatzea.




ONGI PASA BESTAK!

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak · Montaje obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatua
Osagarriak · Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com



**ERRANDONEA
OSTATA** ONGI PASA BESTAK



948 450 216 · ZUBIETA

Arrate Estetika Zentroa
948450286



- Depilazio arrunta, elektrikoa, hariarekin eginikoa eta laserra
- DHA (autobronzeadura)
- Masaje erreduktoreak eta antizelulitikoak
- Gorputzeko tratamenduak
- Aurpegiko grabiketak
- Pedikura eta manikura
- Makillajeak
- Makillaje kurtsoak
- Betileen permanentea
- Maskara permanentea
- Produktuen salmenta

* Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!! 😊




Zubietako Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue
zubietar eta bisitari guztiei

ongi pasa bestak!



aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

PABLOENEA ONGI PASA BESTAK!

KARTA | MENUA | PLATER KONBINATUAK
BOKADILLOAK | HANBURGESAK | ETXKO POSTREAK



www.pabloenea.com
Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077

PRIMI
ostatua

ongi pasa bestak!

Goiko karrika, 7 • ARANTZA
Tel. 948 634 052



Patei Iturria
TAXIA - 8 PLAZA

666 894 833
647 404 839
Eguzkialdea 29 • Arantza
ONGI PASA BESTAK



Burlada
ostatua-jatetxea



BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA
www.restauranteburlada.com

GOIENBURU
iturgintza

ongi pasa bestak!

iturgintza, kalefakzioa eta gasa
eguzki plakak eta biomasa
egurrezko kalderak eta aerotermita
goienburu@gmail.com

Goienburu, 10 • 31790 ARANTZA • 600 902 723

ilargi
okindegia




ongi pasa bestak!



Enkarguak 948 634 156 • ARANTZA

ARANTZAKO BESTAK 2015

Juan Migel ALMANDOZ | Arantzako alkatea

«Bestak denetan pentsatuz egiten ditugu, beraz, ez gelditu etxean eta atera plazara!»

Hogei urteren ondotik, ekainaren 13an kargua berrartuta, Arantzako alkate da Juan Miguel Almandoz, datozen lau urteetan. Ezaguna zaio alkate lana, eta ondorioz, «**ilusio berezirik gabe, egun bat gehiago bezala baina aldi berean eginahala egiteko arduraz**» hartu du kargua. Goizetako baserriko buelten noranzkoa aldatu eta udalerako bidea hartzea egokitu zaió, «**orain arte goizetan joaten nintzen baserrira, orain, eguerdi artean, hiru, lau eta batzuetan bartz ordu ere, udaletxean pasatzen ditut**».

Orain, alkate delarik, «**denak kontuan hartuta, inor ere ez baztertuz, egindako lana**» eskaini nahi dio herritarrei. Burua martxan paratu dute dagoneko, eta «**inbertsio haundirikan ez**» dutela eginen erran digu, «**lehenagokoa mantentitu, bideak, frontoia, herriko etxea, eskola...**». Sentitu, pentsatu eta lanari ekin diote, «**eskola pixka bat txukuntzen ari gara orain**» eta, denborarik galdu gabe, proiektu gehiagotan ere pentsatu dute, bai landa-ondasunen bai hiri-ondasunen katastroaren egoera «**nahiko txarra**» denez, «**landa-ondasun katastroa berritu eta hiri-ondasunena moldatau nahi da**». Bi «**erronka**» horiek omen dira, oro har, legegaldi honetan egin nahi dituztenak. Halere, ez dituzte bazterrean utziko aspaldi hasi eta oraindik, arrazoi bat edo bertzearengatik, akabatu gabeko lanak, «**horiekin ere segituko dugu**».

Lan eta lan artean, arnas pixka bat hartuz, herriko bestetan besta-batzordeak «**haur, gazte eta ez hain gazteetan, jende guztiarengan pentsatuz**» antolatutako ekitaldiak gozatzeko tarterik izanen duela aitortu digu: «**kuadrilan, auzokoein... afariren bat edo bertz egin eta mahai inguruan ordu batzuk pasatuko ditugu**». Izan ere, egun horietan «**beti izaten da zerbait egiteko, baina lan haundiena besta batzordeak egiten du**». Bestetako egunetatik «**polittena**» Amabirjin eguna da, «**nahiz eta ez den gehien gozatzen dudana, etxean kanpokoak etortzen zaizkigu eta bazkalondoa joaten zaigu mugitu gabe, ekitaldi aunitz ez ditugu ikusten**». Guttien gustatzen zaiona, aldiz, azkeneko eguna da, «**akabatzen direlako**» erran digu irriz.

Bestetaz gozatzeko, maiz «**edariaren indarragatik loreak, kontenedoreak... ipurdiz goiti agertzen dira**», eta horrelakoak saihestu eta elkarrekin gozatzea eskatuko luke. Aurten, gainera, lasaitasuna lortzeko, petardoaren arriskua ere ekidin nahi da: «**saltzen duenari errana diogu ezin dituela saldu; orain dela hogei urte, ni alkate nintzelarik, ez nion uzten saltzea, geroztik urtero botatzen dira. Aurten, berriz ere, ez saltzeko erran diogu**». Azken urteetan, bertz aldaketarik ez da egon bestetan, «**aldaketa nabarmenena duela hogei urte izan zen, 'Arantza rock' ospatzen hasi baitziren**».

Akabatzeko, Arantzako bestetara hurbiltzeko gonbitea egin nahi izan du «**bestak denetan pentsatuz egiten ditugu, parte hartu! Ez gelditu etxean eta atera plazara!**».



Juan Migel Almandoz.

«Aurten, berriz ere, petardorik ez saltzeko eskatu diogu saltzaileari».



Gasa Ura Kalefakzioa ongi pasa bestak!!

froling Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
686 23 52 30
patximutu@hotmail.com

ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45 - BERA

GORA AMABIRJINAK!

borzrudo

IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikuluak

ABUZTUAK 14, ORTZIRALA

12:00 Altxaferoa. Ondotik kalejira. **12:30** herriko dantzari gaztetxoek saioa. **14:30** herri bazkaria. **17:30** haurrentzat herri-kirolak plazan. **18:30** gazteentzat ginkana. **20:00** TXAMUKOS mariatxiak plazan. **20:30** bokadillo jatea plazan. **23:30** OBANEUKE taldea.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

10:00 Diana. **11:00** Meza Nagusia eta prozesioa. **Ondotik** herriko dantzariak Arantzako Dantza dantzatuko dute. **17:30** haurrentzat margo tailerra. **19:00** pilota partidak: Olazabal-Errandonea. Mendizabal eta Martinez-Saralegi eta Olaizola. **19:00** Wii gazteentzat. **21:30** suzko zezena. **Gauerditik aitzinera** BIDE BATEZ taldea.



TOMAS TELLETXEA
zaharberitzeak

Esperientzia handiz edozein motatako erreformak egiten dira

Salbatore karrika, 22
31790 ARANTZA
Telf.: 686 348 355
tellecheatomas@gmail.com

Ongi pasa bestak!!

ABUZTUAK 16, IGANDEA

10:00 Diana. **11:00** hauren herri lasterketa. **12:00** kantu poteoa eta luntxa plazan. **16:00** puzgarriak eta minidisko. **17:00** Plater tiroketa Bulatxikin. **19:00** bertso saioa plazan: Alaia Martin, Uxue Alberdi, Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano. Gai-jartzailea: Patxi Larretxea. **Ilunabarrean eta gauerditik aitzinera** LAIOTZ taldea. Atsedendian bingo. **Arratsean** auzoetako afariak.

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA (HAUREN EGUNA)

10:00 Diana. **Goizean** pilota txapelketa. Ondotik entzierro ttikia. **13:00** pilota txapelketako sari banaketa. **17:00** haurrentzako jokoak. **18:00** kalejira erraldoi, buruhandi eta herriko musikariekin. Ondotik bonba japoniarrak. **19:00** herri kirolak: aizkora eta harri-jasotze erakustaldia. Berendu-afari autogestionatua parkean. **Ilunabarrean eta gauerditik aitzinera** TRIKIDANTZ taldea. **21:00** elkartasun afaria Ekaitzan.

Zurgin lanak orokorrean

Luis Ibarra

636 701 204

690 388 263
luisibarra86@hotmail.es
Salbatore karrika, 28 · ARANTZA

Armairuak
Leihoak
Afeak
Teilatu berriak
Parke flotantea
Tarima
Teilatu zaharberitzeak

ongi pasa bestak



ARANTZAKO UDALAK BESTA ONAK OPA DIZKIZUE ARANZTAR ETA BISITARI GUZTIEI



PLAZAKO
denda
ongi pasa bestak!
ETXALAR • 948 635 026

ARROSAMENA zurgindegia
Zurgin lanak
BESTA ONAK PASA ITZAZUE!
948 63 51 44 • ETXALAR



Besta zoriontsuak opa dizkizue!
M^a Luisa
629 438 705
TAXIA

ELUTSA
OSTATU
TABAKOAK
BESTA ONAK PASA ITZAZUE!
Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR



haritzpe
Etxalako japonen
ONGI PASA BESTAK!
Goikolanda, 8
31760 **ETXALAR**
T. 618 778 328



Izaro IRIBARREN INDABURU | Etxalarko trikitilaria

«Herriaren alde egiten duguna saritzen dutela uste dugu altxaferoa botatzeko aukera emanda»

Herrian besta denean, trikiti eta pandero soinurik ez da falta izaten Etxalarren. Aurtun, gainera, besten hasierako egunetik entzunen dira ozen, herriko trikitilari taldea arduratuko baita altxaferoa botatzeaz. 40 musikari inguruk osatzen dute taldea eta tartean da Izaro Iribarren etxalartarra. Umetan hasi zen panderoa eta trikititixa jotzen «**sei urterekin panderoa jotzen, Nagoreekin eta trikitixarekin zazpi urte nituenean hasi nintzen**». Herrian trikititixa eta panderoa jotzen ikasten ari ziren gazteak zeudela ikusita erabaki zuten pausoa ematea, «**horiek jotzen zutela ikusi eta guk ere ahal genuela pentsatu genuen. Horrela hasi ginen gure belaunaldikoak. Elizagoien ahizpek hasitako bideari segika**».

Etxalarko trikitilarien taldea indarra hartzen hasi eta urtez urte taldea handitzen ari da «**taldekide zaharrenek 22 urteren bueltan dituzte eta gazteenek hiru-lau urte**». Denborarekin eboluzionatuz ere joan dira «**beste instrumentuak sartzen joan gara taldean: bateria, gitarra, zeharkako flauta, tronpetak...**» Musikalki aldaketa egin duten arren, bada mantendu duten zerbait «**izena, Etxalarko trikitilariak izaten segitzen dugu, trikititixatik haratago joan arren**» erran digu barrez.

Bestetako txupinazoa botatzea «**ohore handia da**» dio, «**txupinazoan, bestetako ekitaldian, gabonetan, inauterietan, gasna ferian... herrian giroa jartzen saiatzen gara eta herriaren alde, borondatez, egiten duguna saritzeko modua da aukera hau ematea**». Sorpresaren bat ere prestatzen ari omen dira, baina «**sorpresak, ezin dira aurrez erran**».

Plazarik hoberena «**beti herrikoa izaten da. Gure jendearen aurrean, gure herriarentzako geratzen delako egindakoa**». Erronka bat ere jarri dio aurtengoan Izarok bere buruari «**tabernako barrari lotuta egoten diren horiek trikiti doinuek erakarrita, plaza erdira etorri eta ea dantzan jartzea lortzen dugun**».



Izaro Iribarren Indaburu.

«**Tabernako barrari lotuta egoten diren horiek, trikiti doinuek erakarrita, plaza erdira etorri eta ea dantzan jartzea lortzen dugun**».

HERRIKO OKINDEGIA
Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea
Egunero irekia: 06:00 > 13:00 • T. 661 76 70 27 • ETXALAR



ABUZTUAK 14, ORTZIRALA

I. Lasterketa Herrikoia. **17:30** haurren lasterketa. **18:00** helduen lasterketa. Ondotik berendua. **19:45** 'Euskal presoak Euskal Herrirat' agerraldi ixila. **20:00** altxaferua, txistulariak, trikitilariak THE JOSELONTXOS txaranga, buruhandiak eta kankailuak. **21:30** herri afaria frontonean. **00:00-03:00** TRIKIDANTZ.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA (ANDREMARI EGUNA)

10:30 Argisoinuak. **11:00** Meza Nagusia. **12:30** herriko dantzarien saioa txistulari eta musikariekin. **Ondotik** Eskola Zaharreko estalpean hamaiketako dantzari eta musikarientzat. **18:30** Bertsolariak. Egaña eta Lizaso. Gai-jartzai-lea: Joseba Olagarai. **Arratsaldez eta gauaz** GABENARA taldea.

ABUZTUAK 16, IGANDEA (HAURRAREN EGUNA)


10:30 Argisoinuak. **Goiz-arratsaldez** haurrendako Joku Parkea, txu-txu tren-a, puzgarri eta joku tradizionalekin Navar Producciones eta herriko bolondresen eskutik. **13:30** Asau Tiki Guraso Elkarteak antolatua. **16:30** Eskalada erakustaldia eta parte-hartzea haurrentzat. Frontoi gibleko aldean. **18:00** Herriko gazteen herri kirol desafioa. **20:00-22:00** TXUTXIN IBAÑEZ mariatxiak. **00:00-03:00** OHARKABE taldea.

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA

10:30 Argisoinuak. **11:30** herriko haurren XXIX. pilota txapelketa. **12:00** gazteen IV. binakako esku pilota txapelketa. **13:00** Sari banaketa. **18:00** XXIII. Mus txapelketa. **18:30** herriko trikitilarien saioa. Denak kantuan aritzeko paperak banatuko dira. Ondoren trikitilari guztiek berendua izanen dute. **19:30** museko sari banaketa. **19:30** SALTOKA euskal musika eta dantza tradizionala. **00:00-03:00** DANTZADI taldea.

ABUZTUAK 18, ASTEARTEA (ASAU ETA JUBILATUEN EGUNA)

10:30 Argisoinuak. **12:30** Herri kirol konbinatuak. Olasagasti/Etxeberria- Larretxea aita-semeak. Harri-jasotzaileak Santxin eta Estitxu Almandoz. Xanta txingekin. **14:00** Jubilatuen bazkaria Larraburuan. **14:00** Asau ermitako zelai-an. Plaza ingurutik ELUTXA txarangarekin batera denak elkarrekin abiatuko dira ermitako zelairat. **20:00-22:00** ELEKTROPATXARANGA.



**ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN
EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO
AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU**

**EGUN OSOA,
INORA MUGITU GABE,
BERTAN PASA DEZAKEZUE:
ZEREMONIA, BANKETEA
ETA DANTZALDIA**

- 275 lagunentzako jantokia
- Menu aldagarria
- Xoko politik bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN

**EZKONTZA
ZIBILAK**



DONAMARIAKO HERRIKO OSTATUA Uxarrea, 79 · DONAMARIA (Navarra)
T. 948 450 127 M. 630 055 993

Plater konbinatuak
Razioak
Eguneroko menua
Menu bereziak

ONGI PASA BESTAK!



txokoberri
Igeltseritza lanak orokorrean

ONGI PASA BESTAK!

DONAMARIA | 620 011 242 | 676 394 225



BENI arraindegia

EROSKI city

Nagusia, 17 · T. 948 450 589
Zazpigerutze, 8 · T. 948 456 152
DONEZTEBE

ongi pasa bestak!




SASOI
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 F. 948 456 168
info@sasoi.es

ONGI PASA BESTAK

Ongi pasa bestak!

TXARUTA, S.L.
Iturgintza | kalefakzioa | Gasa

BIOMASA INSTALAZIOAK
KOMUNAK | SUKALDEAK
BEROKUNTZAKO INSTALAZIOAK
EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOAK
AEROTERMIA
PELLET | EGURRA | GASOLIOA | GASA

31750 - GAZTELU - DONAMARIA NAFARROA
T. 948 451 728 M. 659 770 015 M. 659 234 825
@ txarutasl@yahoo.es



Donamaria - Gazteluko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei



DONAMARIAKO BESTAK 2015

ABUZTUAK 14, ORTZIRALA

20:00 Txupinazoa. Maite Urroz alkate berriak txupinazoa botako du bestei hasiera emateko. Jarraian, trikitilariak eta buruhandiak. **21:00** Zopak Herriko Ostatuan. **00:30** DJ TIRRI & TERY.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

10:00 Diana auzoz auzo, gaiteroekin. **11:00** Meza. **12:00** Dantzariak eliz atarian. **12:30** Luntxa Herriko Ostatuan Udalak antolatuta. **19:00** Herri kirolak, herriko gazteak ez hain gazteen kontra. **Arratsaldez eta gaeuz** DJ ENDARA.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

12:00 Aizkora apustua: Donato Larretxea-Ander Erasun / Jose Mari Olasagasti -Ruben Saralegi. **14:30** Paellada herrikoia. **18:00** Goitibeherak. **19:30-20:00 aldera** poteoa Eztanda batukada taldearekin. **21:30** gazte afaria. **01:00** dantzaldia ESTU TA LARRI taldearekin.



ABUZTUAK 17, ASTELEHENA (HAURDAREN EGUNA)

11:00-19:00 Puzgarriak frontoian eta igerilekuan. **17:00** Mus txapelketa (bikote bakoitzeko gutxienez kide bat Donamarikoa izan behar da). **19:00** Txokolata-da herriko plazan. **20:00** Patata tortilla eta postre lehiaketa.

ABUZTUAK 18, ASTEARTEA

14:00 Herri bazkaria. Bertsolariak: Jon Maia eta Andoni Egaña. Bazkalondoan konbentura itzulia Aurtizko trikitilariekin. **Arratsaldez eta gaeuz** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.



ORNOZ MUGAIRIKO BESTAK 2015

ABUZTUAK 14, ORTZIRALA (HAURREN EGUNE)

10:00 Herri krosa. **12:00** Txupinazoa beste hasiera ofiziala emanez. Ondotik, kalejira herrian barrena herriko gaztetxoek animaturik. **14:00** haur bazkaria. **16:30** Haur eta gaztetxoendako gymkana eta probak. **17:00** Mus zimizta txapelketa Ongi Etorri ostatuan. **21:00** Baztan zopak. **00:30** Dantzaldia Dj PALIrekin. **06:00** xingerrada.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA (AMABIRGIN EGUNE)

11:00 Meza Nagusia. **12:00** Herriko haurrek eskeinitako dantza emanaldia. Ondotik luntxa. **17:30** pala finalak. **19:30** Mariatxiak. **Arratsaldez eta gauez** Dantzaldia FRANXIXKO akordionistaren eskutik. **21:30** kuadrilen afaria.



ABUZTUAK 16, IGANDEA (GAZTE EGUNE)

10:30 Dianak. **12:00** Partxis txapelketa. **14:30** Gazte bazkaria Azkaskorron. Ondotik, kalejira Txarangak alaiturik. **20:30** Dantzaldia eta gazte mozorro besta GABENARA taldearekin. **21:30** Tortilla lehiaketa. **00:30** dantzaldia GABENARA taldearekin.

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA (HERRIKO EGUNE)

